

APO ZIKIN HORIEK!

J.R. Aihartza

Hitz hauekin hasten da, J.H. FABRE entomologo eta naturalista frantziarra, duela ehun urte inguru gizakiak gaizki-letzat jo arren onuragarritzat dituen animaliei eskainitako liburuan apoaz mintzatzaren deneko kapitulua. Eta XX. mendea amaitzean badugu ere, testu honetan azaltzen zaizkigun ideia nagusienek bizirik diraute egun.

*(...) "Zer esango dizuet bada apoaren alde –izaki doilorra bera–, izendatze hutsa aski da eta nazkarik gordinena sortzeko! Madarikatuen artean madarikatue-
na, edonork gaitzesten du. Guretzat zatarkeria bizia da; ikaragarrikeria guztiak irudikatzen dituen piztia. Zer egin ote du bada dohakabe horrek, gaitzespen unibertsa-
laren zentru bilakatzeko?*

*Itsusia! Soin biguna, itsu-mustuan oratutako masa informea da; alde dortsala, zapaldua eta kolore zikine-
koa, bikor zurbilez hornitua ageri da. Itsusia! Hankak, laburregiak, ez dira gai sabel puztua lokatzetatik altxat-
zeko, eta hau, baldarki, arrastaka darama. Itsusia! Buru zabalean, ahoaren orde, arraildura nardagarria ageri
du; betazal handituen azpian, zorrostasun itzel eta begi-
rada hunkigarriko begi nabarmenak ditu. Itsusia da!
Edozein arriskuren aurrean puztu egiten da, larru-azal
elastiko eta kadenaren azpian, zartako guztietatik babes-
ten duen aire-geruza prestatuz.*

*Eta pozoitsua! Zulo ilunen baten hondoa, lokatzetan
kizkurtuta, lohietako humore erigarriak xurgatzen ditu,
bizkar aldeko bikorretan, arrisku-unetan jariatu eta
soina bustiko dion esne-itxurako edena ekoizteko. Po-
zoitsua! Erasotzaileen begietara likido errekarria jaurti-
kitzen du –gernua–, zeinak bere mintasunaz begietako
argia erretzen bait du. Hatsaren lizunaz airea ere kutsat-
zen du. Pozoitsua da! Ezpainetatik darion lerdeak leku-
ko belar eta fruituak kutsatzen ditu. Itxura nazkagarria
bezain kaltegarriak dira bere oin-aztarnak.*


Itsusia eta pozoitsua da!

*Errukirik gabeko gerra bada, lurra, airea, ura eta
begirada bera ere likisten dituen piztitzarrari!*

Hori diote apoaren gaitzesleek."(...)



Bufo bufo-ren begia (laranja).



B. calamita-ren begia (horia).

Apo arrunta (*Bufo bufo*) Euskal Herriko anfibio anurorik ezagunena dugu, eta gehienentzat baita itsusiena ere. Normalean 10-12 cm-ko luzera izaten badu ere, 15 cm-ra hel daiteke, gure mendi eta landetako anurorik handiena izanik.

Apoaren aktibitatea ilunabarrean hasten da, eta bizimodu gautarra darama. Ibiltari lasaia da eta jauziak egiteko gai ere bada, baina bere hanka motzak eta gorputz sendoa direla eta, ez du inolaz ere igelen liraintasunik lortzen. Hau gainera, bere bizimodu gautar eta lehortarragoarekin lotuta legoke. Izan ere, gauez jauzi handiak egitea ez bait da hain defentsabide egokia, nora erorirko den jakin gabe. Eta honi eta kolore lurtarri esker, ikustezina bilakatzen da, bai depredatzaileentzat eta baita bere presa izango diren ornogabeentzat ere.



B. bufo, apo arrunta; emea.

Normalean animalia bakartiak ba-
dira ere, udaberrian putzu eta erreketan
biltzen dira ugalketarako, gainerako
anfibo gehientsuenak bezalaxe. Sasoi
honetan arren arteko borrokak ugari
izaten dira. Akoplamendua –edo an-
plexua– zenbait egunez luza daiteke,
eta denbora honetan emeak milaka
arrautza jartzen ditu, metro batzuetako
luzera duten lokarritan. Azken obuluak
ernaldu ondoren bikotea banandu
egiten da, berriro ere bizimodu
bakartiari ekiteko.

Animalia helduekin konparatuz,
apoen apaburuak txikiak izaten dira,
gehienez 4-5 cm neurtzen dutelarik.
Kolore ilunekoak –ia beltzak– dira eta
beren garapen-denbora uraren tenpe-
raturari lotuta ageri da. Uzki zentrala,
isats-mutur biribiltzua eta espirakuluaren
zabalgunea ezkerrean izatea lirarteke
apaburu hauen identifikazio-zeinu na-
barienak. Metamorfosiaren iraupena
hilabete ingurukoa izan ohi da, lehorre-
ratzen den apotxoak 10 mm-ko luzera
izaten duelarik.

Benetan ikuskizun xelebrea es-
kaintzen dute apotxo hauek, udaberri
amaieran edo uda hasieran, ehundaka
batera putzutatik irten eta zilipurdika
lehorreranzko lehen jauzi baldarrak
egiten hasten direnean. Nork esan or-
duan, zertxobait hazita gizakion artean
horren harrera txarra izango dutenik?

Eta egia esan, apoenganako gorroto
bizi horren arrazoia bi ideiatan soilik
aurkitzen da: batetik itxura itsusia eta
bestetik pozoiak sortzen duen beldurra.


Eta itxurari buruz zer esan? Apoari
arreta apur batez begiratu dion edonork,
badaki jakin gure herriko gainerako
animalien artean honen su-kolorezko
begiak bezain bitxirik aurkitzea zaila
dela. Itxura orokorrari dagokionez or-
dea, apoaren edertasuna –edo edertasu-
nik eza (?)– bere bizimoduari dagokiona



B. bufo-ren arrautzak



B. bufo, lokatzarekiko
mimetismoa.



B. calamita, apo lasterkaria. Mimetismoa.

da, besterik gabe. Azal bikortsu eta kolore lurterra derrigorrezko bait ditu, bai ehizerako eta bai beste ehiztariengandik ezkutatzeko. Beraz, eta eritziak eritzi, apoaren edertasuna berari komeni zaiona baino ez da.

Pozoiari dagokionez berriz, apoak lepoaren alde dortsalean (guruin parotoideo izeneko egitura berezi batzuetan) ekoizten duen esne-itxurako pozoia, defentsabide hutsa dela esan behar da.

Guruin berezi horiek jariatutako likidoan, bufotoxina izenaz ezagutzen diren substantzia toxikoak ageri dira, baina substantzia hauek, eragingarri izateko, odolera iristea derrigorrezkoa da, eta apoak ez du horretarako mekanismorik –ez hortzik, ez arantzarik, ez beste egitura gogorrik–. Hala ere, pozoia hau apoaren defentsabiderik egokiena izatera heldu da. Izan ere, etsairen batek apoa harrapatzen badu, guruin parotoideoek esnea jariatzen dute, eta honek depredatzailearen aho eta liseri-hodia erretzen ditu, erasotzailearengan okadak sortuz. Orain diogun nazka eta beldurra ere ez ote da prehistoriatik datorkigun esperientzia txarren baten oroitzapen ezkutua?

Apoak ez du inolako arriskurik gizakiontzat eta listu pozoitsu, lerdakutsakor eta hats erigarriei buruzko guztiak mitologia hutsa dira. Asko jota, apoak eskutan hartuz gero, eta esne edota gernuz bustiko balitz, eskuak garbitzea gomendatzen da, hauek begietara edo ermanez gero sumindurarik gerta ez dadin.

Baina kaltegabekoa ezezik, onurgarria ere bada apoa.

Tripazorro izugarria izanik, makina bat bare, kakalardo eta beste ornogabe jaten du egunero, baratza eta soroetan zehar egiten dituen ibilaldietan. Lescuren arabera (1965), apoak jaten dituen koleopteroen hiru laurdenak kaltegarritzat jotzen dira. Animalia goseti honen laguntza aspaldi ezagutzen da Ingalaterran. Joandako mendean azokan saldu eta erosten ziren eta kontu handiz etxera eramaten, lorategi eta negutegietan bizi zitezen, bertako xomorroak jan eta landareak zainduz. Eta Euskal Herrian aldiz, baratzen bat aurkituz gero, makilamutur batean sartu,

eta eguzkitan uzten da dohakabea, pixkanaka-pixkanaka lehor eta zimel dadin. Sari galanta gizarajoarentzat!

Apo arrunta (*Bufo bufo*) ezezik, Euskal Herriko hego-aldean apo lasterkaria (*B. calamita*) ere bizi da. Aurrekoa baino txikiago bada ere, orokorrean esandako guztia baliagarri da apo lasterkariarentzat, bai bizimodu eta biologiari dagokionez eta baita bere inguruan sortutako mitologiari dagokionez ere.

Izena, duen ohitura ibiltaritik datorkio; etsaiengandik ihes egiteko nahiz ehizerako, nahiago izaten bait du korrika egitea, jauzirik ia inoiz ere burutu gabe. Apo lasterkaria industailea da, eta lan horretarako aurreko eta atzeko hankak erabiltzen ditu, harea edota lur harrotan nahikoa bide handiak zabaltzen dituelarik. Elikadura, lur eta harean aurki ditzakeen inurritz osatzen da bereziki.

Banaketa geografikoari begira, apo arrunta (*B. bufo*) askoz ere hedatuagoa dugu apo lasterkaria (*B. calamita*) baino, eta ia Euskal Herri osoan aurki daiteke, nahiz eta Kantauri aldean hegoaldeko eskualdetan baino ugariago izan. Apo lasterkaria (*B. calamita*) aldiz, hegoaldean bakarrik aurkitzen da, salbuespen bakarrak kostaldeko koloniatxo batzuk izanik. Eskualde mediterraneoan bizi diren koloniak sendoak diren artean, kostaldeko koloniatxo hauek galtzar daude. Izan ere, ugalketarako erabiltzen dituzten putzu gehienak lehortu egin bait dituzte. ●



B. calamita, apo lasterkaria.